Aurrekontuak 2022: Hamarkadako erronka estrategikoei aurrea hartzeko konpromisoak

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian, Euskal Herri eta mundu osoan bezala, orain arte nagusi izan diren eskema eta molde askotan eraldaketa handiak ekarriko dituzten aldaketa prozesu sakonei heldu beharko diegu datorren hamarkadan. Trantsizio ekologikoak eta iraultza digitalak ekonomia eta bizitzeko moduak aldatuko dituzte. Eta aldaketa horiek justizia sozialaren parametroetan oinarritu eta garatu beharko ditugu ezinbestean.

Pandemiak eraldaketa prozesu hori azkartu besterik ez du egin: garapen digitalari eman zaion bultzada izugarria da eta, egunotan Glasgown ikusten ari garen moduan, eraldaketa energetikoaren premia ukaezina da. Denbora agortzen ari da. Oso urte gutxi ditugu erregai fosilak behin betiko baztertu eta negutegi efektuko gasen isuriak murrizteko; hala egin ezean, ondorioak ikaragarriak izango dira, kontrolatu ezinak, hurrengo belaunaldien ongizatea, bai eta gurea ere, arriskuan jartzeraino.

> Ezohiko une historiko honetan aurrekontuek herri honek behar dituen akordio politikoak josteko markoa eskaintzen dute

Iraultza digitalak eta trantsizio energetikoak ehun produktiboaren eraldaketa ekarriko dute, eta euskal ekonomiak, industriak bereziki, mehatxu egiten dion prozesu horretara egokitzen jakin beharko du, beraz, aldaketei egokitzea eta, ahal den neurrian, aldaketak lideratzea etorkizuneko berme bakarra bihurtu delako arriskuak aukera bihurtzeko.

ehbildu

Gure ongizate sistemaren egitura guztiak auzitan daude, krisi demografikoaren eraginez, eta aldaketa hauek guztiak justizia sozialaren paradigma berriaren markoan gauzatu behar dira. Orain arte, erasoaldi neoliberalak aberastasunaren birbanaketaren mekanismoak aldatu ditu eliteen alde. Horren ondorioz, aberastasuna gero eta esku gutxiagoetan metatzen ari da gehiengoentzat estutasunak sortzen. Arrakala sozialak areagotzen ari dira eta horri aurre egiteak politika publikoen lehentasuna izan behar du. Ez da arrakastarik izango trantsizio digital edo ekologikoan gizartearen kohesioa eta segurtasuna ez badira indartzen.

> 2022ko Aurrekontuak aukeratzat hartu behar dira politika publikoak herri gisa ditugun erronka estrategikoekin lerrokatzeko

Testuinguru global horretan iritsi da Jaurlaritzaren 2022ko Aurrekontu Orokorren eztabaida. Erabat ezohikoa den garai baterako erantzunak ematen hasteko aurrekontuak dira 2022koak. Inoiz ikusi gabeko egoera historiko honetan, erronka ikaragarriak (ekologikoa, digitala eta soziala) aurrean ditugun honetan, herri honen indar guztiak norabide zuzenean jarri beharra daukagu, une honetan hartzen diren eta hartzen ez diren erabakiek hamarkada oso bat baldintzatuko baitute. EH Bilduren irudiko, 2022ko Aurrekontuak aukeratzat hartu behar ditugu politika publikoak eta ildo presupuestarioak herri gisa ditugun erronka estrategiko horiekin lerrokatzeko, herri honek behar dituen akordio politikoak josteko markoa eskaintzen dutelako.

Horregatik, Jaurlaritzak 2022rako aurkeztu duen aurrekontuaren gabeziak egiturazkoak badira ere, EH Bilduk aurrekontuei buruzko eztabaida baliatu nahiko luke herri honek hurbilen dituen erronkei buruzko eztabaida zabal eta zintzoa irekitzeko. Ildo horretan, errealismotik egin ditugu proposamen batzuk; proposamen arrazoituak, neurtuak eta bideragarriak dira, ditugun eraldaketa-ardatz nagusiak adierazten dituztenak. Une erabakigarri honek eskatzen duen ikuspegi zabaletik, datozen hamarkadetako erronkei aurre hartzeko herri honek behar dituen gutxieneko adostasunak landu eta lortu ahal izateko bidean eraikitako proposamenak dira.

Hausnarketa politiko orokor hori dago EH Bilduk Jaurlaritzaren Aurrekontuak hobetzeko egiten duen proposamenaren muinean. Ezohiko egoera historiko honek ezohiko erantzunak, ez betikoak, eskatzen ditu. Hala, EH Bilduk mahai gainean jartzen dituen neurriek eta alternatibek nahitaez egin beharreko aldaketa prozesu horietan urrats tinkoak egiten hastea dute helburu, ziklo historikoak adierazten digun norabidean politika publikoak lerrokatzeko beharra eta aukera dugulako.

1- KONPROMISO POLITIKOAK

1. EAEko batez besteko soldataren % 60ren baliokide izango den **Gutxieneko Soldata propioa ezartzeko Lanbide Arteko Akordio bat sustatzea,** Europako Gutun Sozialean ezarritakoa betez, eta akordio hori EAEko sektore publiko osoan aplikatzea.

2. **Etxebizitzaren alokairu-prezioak mugatzeko lege propioa indarrean jartzea.** Horrek EAEko alokairu merkatu berezitu osoan eraginkortasunez jardutea ahalbidetuko luke, pertsona orori dagokion etxebizitza eskubidea bermatu eta gazteen emantzipazioa errazteko helburuarekin.

3. **Zerga erreformari ekiteko konpromisoa,** eztabaida publikoa ahalbidetuko duen ponentzia bat sortuz, **zerga politika berria 2023an indarrean egon dadin,** hamarkadako erronkei erantzun, progresibitatean eta izaera birbanatzailean sakondu, diru-bilketa handitu eta, finean, eredu berri baterako oinarriak jartzeko.

4. **Herri Akordioa 2026an EAEk bere Barne Produktu Gordinaren (BPG) % 3 Ikerketa, Garapen eta Berrikuntzan inbertitzea lortzeko.** Akordio horren diseinuan, garapenean eta gauzatzean inplikatutako eragile guztien parte-hartzea bermatuko da.

5. Kalitatezkoa eta osoa den enplegua lortzeko bidean, **Ekonomia Soziala (kooperatibak) Lanbideren Administrazio Kontseiluan sartzea.**

6. **Ikus-entzunezkoen sektorea indartzea.** Ikus-entzunezko Komunikazioaren Lege Proiektuari buruzko akordio parlamentarioaren garapen, defentsa eta jarraipena egiteko mahai sektoriala sortzea eta Ikus-entzunezko Hedabideen Euskal Kontseilua sortzeko Lege Proposamena tramitera onartzea.

2- NEURRI EKONOMIKOAK

1. **OSASUNA. Lehen Arreta indartu eta berrantolatzea, bertako plantilla handituz.** Beharrezko neurria da Osakidetzan aurrez aurreko kontsultak bermatzeko eta bertako zerbitzuek galdu duten kalitatea berreskuratzeko, pazienteei, behar den denboran eta moduan, arreta egokia eskainiz.

   DIRU-PARTIDA: 30 MILIOI EURO

2. **KLIMA LARRIALDIA.** Udalen trantsizio energetikorako funts osoa aktibatzea, efizientzia, autokontsumo eta komunitate energetikoetarako diru-laguntzak funts propioekin handitzea eta energia merkaturatzaile publiko baten bideragarritasuna aztertzea.

   DIRU-PARTIDA: 40 MILIOI EURO

3. **ONGIZATE ENERGETIKOA.** Beharrezkoa da **argindarraren prezioaren igoeraren ondorioei aurre egiteko berehalako neurriak** abian jartzea, premia duten kasu guztietara heltzeko Gizarte Larrialdietarako Laguntzen baldintzak eta zenbatekoak zabalduz.

   DIRU-PARTIDA: 2 MILIOI EURO

4. **POLITIKA SOZIALAK. Pobrezia murrizteko Lan eta Enplegu Sailak 2021ean izan duen inbertsio mailari eustea.** Milaka pertsona eta familiaren segurtasun bitala hankaz gora dagoen honetan, ziurgabetasun egoerei premiaz, eraginkortasunez eta nahikotasunez erantzun behar zaie.

   DIRU-PARTIDA: 35 MILIOI EURO

5. **ERRESIDENTZIAK.** Prozesu bat ireki behar da pandemian zehar adinekoen egoitza-zentroetan gertatu dena egoiliar, senitarteko eta sindikatuekin batera aztertzeko eta egoitzen baldintzak hobetzeko. Zentro horietako baldintza materialak, funtzionalak zein langileen aldetikoak zehazten dituen 126/2019 Dekretua aldatzeko prozesua azkartu behar da eta aldaketa horiek gauzatzeko funts bat sortuko du Jaurlaritzak.

DIRU-PARTIDA: 8 MILIOI EURO

6. **GAZTE EMANTZIPAZIOA. 18-23 urte bitarteko gazteak emantzipatzeko oinarrizko errenta ezartzeko proiektu pilotu bat** abiatzea, arloko eragile, talde eta EHUrekin elkarlanean, gazteen aniztasuna abiapuntu izanik eta lurralde, genero zein klase irizpideak aplikatuz.

DIRU-PARTIDA: 3 MILIOI EURO